


Finantza arloa

Finantza merkatuek aurreko hiruhilekoan bizi zuten bilakaera hobetzeko prozesuari jarraipena eman zioten eta egonkortasuna errotuz joan zen, tentsioak nabarmen baretu ziren bitartean, nahiz eta ekonomiaren aurreikuspenez aldaketa garrantzitsurik gertatu ez zen. Tonu positibo hori burtsaren indizeetan nabaritu zen, arriskua ekiditeko joera leundu zelako, kapitaleko merkatuetan finantzazioa lortzeko baldintzek hobera egin zutelako eta kredituen arrisku sariak gutxitu zirelako.

Bund alemaniarrekiko gainkostua Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.

Banka batasunaren eremuan hartu diren erabakiak eta Greziako zorraren erosketaren emaitza ona portaera hobe horren oinarrian daude. Hain zuzen ere, Gainbegiratzeko Mekanismo Bakarra ezartzeko oinarrien inguruan adostasuna lortu zen. Halaber, Greziako kasuan, finantza alorreko zailtasunak konpontzen ari ziren, jaso behar zituen diru laguntzaren lehen bi zatiak onartu eta gero.

Espainiaren kasuan, berriz, bankuak onbideratzeko prozesuak ere erritmo onean egin zuen aurrera. Egonkortasunerako Europako Mekanismoak (MEDE) adostutako lehen ordainketa egiteaz gain, Bankaren Berregituraketaz Iritsitako Aktiboaren Kudeaketa Sozietatea (SAREB) dagoeneko prest dago nazionalizatu diren entitateen aktibo problematikoak jasotzeko. Horri esker, erakunde horiek balantzea onbideratzen lortuko dute eta bideragarriak izango dira epe luzean. Halaber, finantza erakundeak merkatuaren baldintza egokiagoak baliatzen ari dira zorra jaulkitzeko eta, horren ondorioz, Europako Banku Zentralarekiko mendekotasuna gutxitzen ari dira.

Eragiketa guzti horiei esker, merkatuetako tentsioak baretu ziren, arrisku sarien jaitsierak egiaztatzen duenez. Hala eta guztiz ere, beherakada hori, 2013ko lehen hilekoetan berriro egin baitzuen zertxobait gora, Portugal eta Greziari egin zien bereziki mesedea, azken herrialde horretan zor subiranoa berriro erosteko eragiketaren emaitza onaren ondorioz. Aitzitik, Irlandak, Espainiak eta Italiak beren zorren errendimendua goratu zuten Italiako lehen ministroaren dimisio iragarkiaren ondorioz, nahiz eta bankari emandako diru laguntzaren ordainketak konfiantza berreskuratzen lagundu duen azken aldia. Azkenik, AEBei dagokienez, arazo fiskalak leuntzeko lortu zen akordioak arrisku saria maila apal batean utzi zuen.


Moneta politikaren esparruan, prezioen egonkortasunerako arriskurik ezak bidea eman zion EBZri finantzaziorako eragiketa nagusien interes tasa %0,75ean uzteko, eta %1,50ean eta %0an, hurrenez hurren, kredituaren erraztasunarena eta gordailu erraztasunarena. Beste aldetik, AEBek, Euroguneak bezala, interes tasak ordura arteko maila apalenetan mantendu zituen (%0aren eta %0,25aren artean), langabezia tasa altuaren ondorioz. Halaber, hipoteka eta Altxorreko bonuak erosteko egitasmoari jarraipena eman zion, ekonomia suspertze aldera. Oso kostu txikia duten kredituak lortzeko aukerak beste herrialde batzuetan ere eskaini ziren, hala nola Erresuma Batuan eta Japonian. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeetan moneta politika ez zen horren laxoa izan, bertako ekonomiek suspertzeko joerari ekin diotelako jadanik.

Truke tasei dagokienez, euroak balioa irabazi zuen dolarraren aldean, amildegi fiskal delakoaren inguruko eztabaidek ekarri zuten ziurgabetasunaren ondorioz eta AEBen moneta


politikaren norabide oso hedakorrengatik. Halaber, yenarekiko sendotasuna oso nabarmena izan zen, Japoniako ekonomia deflaziotik eta atzeralditik erreskatatzeko onartu ziren erabakien ondorioz.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libra esterlina



Suitzako frankoa



Yena




Iturria: Espainiako Bankua.

Gainontzeko merkatuen bilakaerarekin bat eginez, burtsek ere kotizazio hobeak lortu zituen ia herrialde guztietan. Hala ere, nabarmendu behar da Espainiako burtsaren joera, gehien igo zena izan ondoren, beheranzko joera hasi baita markatzen, neurri batean urtarilaren 31tik posizio laburrak berriro baimenduta daudelako.


Interes tasen bilakaera

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, moneta politika hedakorrak Euroguneko banku arteko merkatuan nabaritzen hasi ziren, merkatuan tentsiorik ez zegoelako eta interes tasa ofizialak gutxituko zirelako igurikimena zabaltzeko. Izan ere, gordailuen interes tasak epe guztietan jaitsi ziren, bereziki epe luzeena zutenetan. Horren ondorioz, hiru hilabeterako euriborra %0,2aren inguruan kokatu zen eta urte baterakoa, berriz, %0,6an. Hala ere, 2013ko hasieran hazkunde txiki bat hauteman da.